




2008ko martxoaren 11 asteartea
50 Zenbakia

Martes 11 de marzo de 2008
Número 50

LABURPENA — SUMARIO

	<i>Orrialdea</i>		<i>Página</i>
3	Gipuzkoako Lurralde Historikoko Xedapen Orokorrak.	3	Disposiciones Generales del T.H. de Gipuzkoa.....
4	Gipuzkoako Lurralde Historikoko Administrazioa.....	4	Administración del T.H. de Gipuzkoa.....
5	Estatuko Administrazioa	5	Administración del Estado
6	Autonomia Erkidegoko Administrazioa.....	6	Administración de la Comunidad Autónoma
7	Udal Administrazioa.....	7	Administración Municipal
9	Iragarkiak	9	Anuncios.....
	7.605		7.605
	7.608		7.608
	7.653		7.653
	7.657		7.657
	7.694		7.694
	7.752		7.752

3

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO XEDAPEN OROKORRAK DISPOSICIONES GENERALES DEL TERRITORIO HISTORICO DE GIPUZKOA

3

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

2008ko martxoaren 4ko 7/2008 FORU DEKRETUA,
Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan bizitza
edo elbarritasuneko banakako aseguru kontratuei
kompentsazio fiskala aplikatzeko mekanismoa onar-
tzen duena.

HITZAURREA

Abenduaren 29ko 10/2006 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzkoak, berrikuntza nabarmenak sartu zituen kapital higikorren etekinen esparruan, eta horien artean, bizitza edo elbarritasun alorreko banakako aseguru kontratuetatik eratorritakoetan. Aldaketa horien ondorioz, aseguru kontratu horietatik datozen etekinak orain ez dira sartzen oinarri ezargarri orokorrean, eta aurrezpenaren oinarri ezargarria osatzen dute kapital higikorren gainerako etekin gehienekin, kapital higiezinaren zenbait etekinekin eta ondare eskualdaketetatik erortzen diren ondare irabazi eta galerekin batera. Horiei guztiei %18ko zerga tasa aplikatzen zaie. Beste aldaketa bat izan da kapital moduan jasotako diru kopuruen irregulartasun kasuetan aplikagarri ziren %100etik beherako integrazio koefizienteak desagertu egin direla.

DIPUTACION FORAL DE GIPUZKOA

DECRETO FORAL 7/2008, de 4 de marzo, por el que se aprueba el mecanismo de compensación fiscal aplicable en el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas a los contratos de seguro individuales de vida o invalidez.

PRAMBULO

La Norma Foral 10/2006, de 29 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas del Territorio Histórico de Gipuzkoa, introdujo importantes novedades en el ámbito de los rendimientos del capital mobiliario, y entre ellas, en el de los rendimientos derivados de los contratos de seguro individuales de vida o invalidez. En virtud de estos cambios, los rendimientos derivados de este tipo de contratos pasan de estar integrados en la base imponible general a constituir base imponible del ahorro, junto con la mayor parte del resto de los rendimientos del capital mobiliario, determinados rendimientos del capital inmobiliario y con las ganancias y pérdidas patrimoniales derivadas de transmisiones de elementos patrimoniales, y tributar todo ello a un tipo fijo del 18 por 100. Estos cambios se completan con la supresión de los coeficientes de integración inferiores al 100 por 100, aplicables a los supuestos de irregularidad en las percepciones en forma de capital.

Aldaketa horiek direla-eta, aipatutako 10/2006 Foru Arauaren hamaseigarren xedapen iragankorrek konpentsazio fiskal bat ezarri zuen bizitza edo elbarritasun alorreko banakako aseguru kontratuarentzat. Horrela, xedapenak dio zergadunek kapital geroratu bat jasotzen badute 2007ko urtarrilaren 1a baino lehen izenpetutako bizitza edo elbarritasun kontratu indibidual baten ondorioz, eta etekin horrentzat foru arau horretan ezarritako zerga araubidea okerrago ateratzen bada Errenta Zergari buruzko abenduaren 24ko 8/1998 Foru Arauaren jasotakoa baino, arauzko eran erabakiko dela nola eta zein baldintzatan jaso ahal izango duten zergadun horiek konpentsazio fiskal bat. Ondorio horietarako, aipatu xedapenak dio kontuan hartuko direla bakar-bakarrik 2006ko abenduaren 31ra arte ordaindutako primak eta, data horren ondoren ordaindu badira, baita kontratuaren jatorrizko polizan aurreikusitako prima arruntak ere.

Foru dekretu honek araututa uzten du nolako baldintzak hartuko diren kontuan konpentsazio fiskala zer zergadunek aplikatu dezaketen erabakitzeko eta zein prozedura erabiliko den haren zenbatekoa finkatzeko. Konpentsazio fiskala kenkari bat izango da beti, kuotan aplikatzekoa. Bere zenbatekoa kalkulatzeko, kuantifikatu egingo da zenbatean den negatiboa zergadunarentzat 10/2006 Foru Arauak bizitza eta elbarritasun aseguruarentzat aurreikusten duen tratamendua 8/1998 Foru Arauaren jasotako tratamenduaren aldean (2006ko zergaldian aplikagarri zen idazkeraren arabera beti).

Kompentsazio fiskal hori Zergaren sistematikan sartzeko, beste xedapen iragankor bat gehitu zaio abenduaren 18ko 137/2007 Foru Dekretuari, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga onartzen duen Erregelamenduari, zortzigarrena hain zuzen.

Dekretu hau onartzeko ahalmenari dagokionez, lehenago aipatu dugun 10/2006 Foru Arauaren amaierako bigarren xedapenak ezarrita dakar Foru Aldundia eta Fiskalitaterako eta Finantzatarako diputatua, Ogasuneko eta Finantzetako gaur, baimenduta geratzen direla foru araua garatu eta gauzatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzaten.

Horiek horrela, Ogasuneko eta Finantzetako foru diputatuak proposaturik, Lege Aholkularitzako Batzordearekin bat etorritik, eta Diputatuen Kontseiluak gaurko bileran eztabaidatu eta onartu ondoren, honako hau,

XEDATU DUT

Artikulu bakarra. Abenduaren 18ko 137/2007 Foru Dekretua, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua onartzen duena, aldatzea.

Beste xedapen iragankor bat, zortzigarrena, gehitu zaio Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua onartzen duen abenduaren 18ko 137/2007 Foru Dekretuaren artikulu bakarrari. Hona hemen testua:

«Zortzigarrena. Bizitza edo elbarritasun alorreko banakako aseguru kontratuei aplikagarri zaien konpentsazio fiskala.

Bat. 2007. urteko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietan zergadunek aurrezpenaren oinarri ezargarrian sartu badituzte kapital geroratu moduan jasotako diru kopuruengatik lortutako etekinak, hain zuzen ere Gipuzkoako Lurralde Historikoko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 29ko 10/2006 Foru Arauaren 39.1.a) artikuluan aipatuak, eta etekin horiek 2007ko urtarrilaren 1a baino lehen kontratatu diren bizitza edo elbarritasun aseguruetatik badatoz eta abenduaren 24ko 8/1998 Foru Arauak 38.2.b) arti-

Con motivo de tales modificaciones, la disposición transitoria decimosexta de la Norma Foral 10/2006 citada anteriormente establece una compensación fiscal aplicable a los contratos de seguro individuales de vida o invalidez, remitiendo a desarrollo reglamentario la determinación del procedimiento y condiciones para la percepción de esta compensación fiscal por aquellos contribuyentes que perciban un capital diferido derivado de un contrato de seguro individual de vida o invalidez contratado con anterioridad a 1 de enero de 2007, en el supuesto de que la aplicación del régimen fiscal previsto en la citada norma foral para dichos rendimientos les resulte menos favorable que el establecido en su predecesora, la Norma Foral 8/1998, de 24 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas. A estos efectos, establece que se deben tener en cuenta solamente las primas satisfechas hasta el 31 de diciembre de 2006, así como las primas ordinarias previstas en la póliza original del contrato satisfechas con posterioridad a dicha fecha.

El presente Decreto Foral establece las condiciones para determinar qué contribuyentes van a poder aplicar esta compensación fiscal y el procedimiento para determinar su importe. La compensación fiscal se materializa en forma de una deducción en la cuota, para cuya determinación se establece una mecánica que permite cuantificar el resultado desfavorable para el contribuyente de la aplicación del tratamiento previsto para los seguros de vida e invalidez en la Norma Foral 10/2006, respecto del resultado que hubiese arrojado la aplicación de lo previsto en la Norma Foral 8/1998, en su redacción aplicable durante el periodo impositivo 2006.

Esta compensación fiscal se incorpora a la sistemática del Impuesto a través de su adición al Reglamento del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas aprobado por el Decreto Foral 137/2007, de 18 de diciembre, en forma de una nueva disposición transitoria, la octava.

Por lo que respecta a la habilitación para la aprobación de la presente disposición, hay que remitirse a la disposición final segunda de la Norma Foral 10/2006 citada con anterioridad, que autoriza a la Diputación Foral y al Diputado o a la Diputada Foral para la Hacienda y las Finanzas, actual Diputado de Hacienda y Finanzas, para dictar cuantas disposiciones sean necesarias para su desarrollo y ejecución.

En su virtud, a propuesta del Diputado Foral de Hacienda y Finanzas, de conformidad con la Comisión Jurídica Asesora y previa deliberación y aprobación del Consejo de Diputados en sesión del día de la fecha,

DISPONGO

Artículo único. Modificación del Reglamento del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, aprobado por el Decreto Foral 137/2007, de 18 de diciembre.

Se añade una disposición transitoria octava al Reglamento del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas aprobado por el artículo único del Decreto Foral 137/2007, de 18 de diciembre, que quedará redactada en los siguientes términos:

«Octava. Compensación fiscal aplicable a los contratos de seguro individuales de vida o invalidez.

Uno. Tendrán derecho a la deducción de la cuota íntegra regulada en esta disposición los contribuyentes que en los periodos impositivos iniciados a partir del 1 de enero de 2007 integren en la base imponible del ahorro rendimientos derivados de percepciones en forma de capital diferido a las que se refiere el artículo 39.1.a) de la Norma Foral 10/2006, de 29 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas del Territorio Histórico de Gipuzkoa, procedentes de seguros de vida o invalidez contratados con anterioridad a 1 de enero de

kuluan eta bederatzigarren xedapen iragankorrean aipatzen dituen integrazio portzentajeak aplikatu bazaizkie (%60 eta %25 kasu batean, eta %25 bestean), zergadun horiek eskubidea izango dute xedapen honetan arautzen den kenkaria kuota osoan aplikatzeko.

Bi. Kenkariaren zenbatekoa ondoko eragiketaren diferentzia positiboa izango da: Aurreko apartatuan aurreikusitako etekin garbiak elkarren artean integratu eta konpentsatu ondoren ateratzen den saldo positiboari %18ko karga tasa aplikatuta lortzen den kopurua ken etekin horiek aurreko apartatuko portzentajeak aplikatuta oinarri likidagarri orokorrean sartu izan balira aterako zen kuota osoaren zenbateko teorikoa.

Hiru. Ondoko hau izango da kuota osoaren zenbateko teorikoa, aurreko apartatuan aipatua:

a) Aurreko bat apartatuan aipatutako etekinak elkarren artean integratu eta konpentsatzen badira Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 24ko 8/1998 Foru Arauaren 38.2.b) artikuluan eta bederatzigarren xedapen iragankorrean aurreikusitako integrazio portzentajeak aplikatuta (2006ko zergaldiari aplikagarri zitzaion testuaren arabera), eta horrek saldo negatiboa edo zero saldoa ematen badu, kuota osoaren zenbateko teorikoa zero izango da.

b) Aurreko bat apartatuan adierazitako etekinak elkarren artean integratu eta konpentsatzen badira Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 24ko 8/1998 Foru Arauaren 38.2.b) artikuluan eta bederatzigarren xedapen iragankorrean aurreikusitako integrazio portzentajeak aplikatuta (2006ko zergaldiari aplikagarri zitzaion testuaren arabera), eta horrek saldo positiboa ematen badu, kuota osoaren zenbateko teorikoa ondoko eragiketaren diferentzia positiboa izango da: Oinarri likidagarri orokorraren eta lehen adierazitako saldo positiboaren baturari 10/2006 Foru Arauaren 77.1 artikuluan xedatutakoa aplikatu ondoren ateratzen den kuota ken oinarri likidagarri orokorrari artikulua horretan esandakoa aplikatuta ateratzen dena.

Lau. Aurreko hirugarren apartatuan aipatutako saldoa kalkulatzeko, 2006ko abenduaren 31ra arte ordaindutako primei dagokien etekin garbiaren zatiari bakarrik aplikatuko zaizkio 8/1998 Foru Arauaren 38.2.b) artikuluan eta bederatzigarren xedapen iragankorrean jasota dauden integrazio portzentajeak. Hala ere, data horren ondoren ordaindutako primei ere aplikatuko zaizkie aseguru kontratuaren jatorrizko polizan aurreikusitako prima arruntak direnean.

Kapital geroratuko aseguru polizaren prima bakoitzari lortutako etekin osoan zenbateko etekina dagokion kalkulatzeko, etekin osoa ondoko zatiketarik ateratzen den ponderazio koefizientearekin biderkatuko da:

— Zatikizunean, prima ordaindu zenetik diru kopurua kobratu arte igarotako urte kopurua primarekin biderkatuz ateratzen den emaitza jarriko da.

— Zatitzailean, prima ordaindu zenetik diru kopurua kobratu arte igarotako urte kopurua prima bakoitzarekin biderkatuz ateratzen diren biderkaduren batura jarriko da.

Bost. Aseguru entitateak zergadunari jakinarazi behar dio zenbateko etekin garbiak izan dituen, prima bakoitzeko, bizitza edo elbarritasun aseguruetatik eratorrita kapital geroratu moduan jasotako diru kopuruengatik. Etekin horiek aurreko apartatuan xedatutakoari jarraikiz kalkulatu dira, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 24ko 8/1998 Foru Arauaren 38.2.b) artikuluan eta bederatzigarren xedapen iragankorrean aurreikusten dituen integrazio portzentajeak aplikatuta».

2007 y a los que les hubieran resultado de aplicación los porcentajes de integración del 60 y 25 por 100 previstos en el artículo 38.2.b) y del 25 por 100 previsto en la disposición transitoria novena de la Norma Foral 8/1998, de 24 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.

Dos. La cuantía de esta deducción será la diferencia positiva entre la cantidad resultante de aplicar el tipo de gravamen del 18 por 100 al saldo positivo resultante de integrar y compensar entre sí el importe total de los rendimientos netos previstos en el apartado anterior, y el importe teórico de la cuota íntegra que hubiera resultado de haber integrado dichos rendimientos en la base liquidable general con aplicación de los porcentajes indicados en el apartado anterior.

Tres. El importe teórico de la cuota íntegra a que se refiere el apartado anterior será el siguiente:

a) Cuando el saldo resultante de integrar y compensar entre sí los rendimientos a que se refiere el apartado uno anterior, aplicando los porcentajes de integración previstos en el artículo 38.2.b) y en la disposición transitoria novena de la Norma Foral 8/1998, de 24 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, en su redacción aplicable al periodo impositivo 2006, sea cero o negativo, el importe teórico de la cuota íntegra será cero.

b) Cuando el saldo resultante de integrar y compensar entre sí los rendimientos a que se refiere el apartado uno anterior, aplicando los porcentajes de integración previstos en el artículo 38.2.b) y en la disposición transitoria novena de la Norma Foral 8/1998, de 24 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, en su redacción aplicable al periodo impositivo 2006, sea positivo, el importe teórico de la cuota íntegra será la diferencia positiva entre la cuota resultante de aplicar a la suma de la base liquidable general y del saldo positivo anteriormente señalado, lo dispuesto en el artículo 77.1 de la Norma Foral 10/2006, y la cuota resultante de aplicar lo señalado en dicho artículo a la base liquidable general.

Cuatro. Para la determinación del saldo a que se refiere el apartado tres anterior, solamente se aplicarán los porcentajes de integración previstos en el artículo 38.2.b) y en la disposición transitoria novena de la Norma Foral 8/1998 a la parte del rendimiento neto que corresponda a primas satisfechas hasta el 31 de diciembre de 2006, aplicándose también a las posteriores a esta fecha, cuando se trate de primas ordinarias previstas en la póliza original del contrato de seguro.

A efectos de determinar la parte del rendimiento total obtenido que corresponde a cada prima del contrato de seguro de capital diferido, se multiplicará dicho rendimiento total por el coeficiente de ponderación que resulte del siguiente cociente:

— En el numerador, el resultado de multiplicar la prima correspondiente por el número de años transcurridos desde que fue satisfecha hasta el cobro de la percepción.

— En el denominador, la suma de los productos resultantes de multiplicar cada prima por el número de años transcurridos desde que fue satisfecha hasta el cobro de la percepción.

Cinco. La entidad aseguradora comunicará al contribuyente el importe de los rendimientos netos derivados de percepciones en forma de capital diferido procedentes de seguros de vida e invalidez correspondientes a cada prima, calculados según lo dispuesto en el apartado anterior y con la aplicación de los porcentajes de integración previstos en el artículo 38.2.b) y en la disposición transitoria novena de la Norma Foral 8/1998, de 24 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas».

AMAIERAKO XEDAPENA

Foru dekretu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean, eta 2007ko urtarilaren 1etik aurrera hasitako zergaldiei aplikatuko zaie.

Donostia, 2008ko martxoaren 4a.

DIPUTATU NAGUSIA,
Markel Olano Arrese.

OGASUN ETA FINANTZA
DEPARTAMENTUKO
FORU DIPUTATUA,
Pello Gonzalez Argomaniz.

(2370)

(2695)

DISPOSICION FINAL

Este Decreto Foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa, y será de aplicación a los periodos impositivos iniciados a partir del 1 de enero de 2007.

Donostia-San Sebastián, a 4 de marzo de 2008.

EL DIPUTADO GENERAL,
Markel Olano Arrese.

EL DIPUTADO FORAL
DEL DEPARTAMENTO DE
HACIENDA Y FINANZAS,
Pello Gonzalez Argomaniz.

(2370)

(2695)

4

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO ADMINISTRAZIOA ADMINISTRACION DEL TERRITORIO HISTORICO DE GIPUZKOA

4

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

8/2008 FORU DEKRETUA, martxoaren 4koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoan erlezaintza sustatzeko laguntzei buruzkoa.

Europar Batasuneko Kontseiluaren 797/2004 Erregelamenduak (EE), 2004ko apirilaren 26koak, erlezaintzako produktuen ekoizpen eta merkaturatze baldintzak hobetzeko neurriei buruzkoak, erlezaintzari laguntzeko eta erlezaintza sustatzeko hainbat neurri ezartzen ditu, eta Europar Batzordearen 917/2004 Erregelamenduak (EE), 2004ko apirilaren 29koak, haiek aplikatzeko xedapenak ematen ditu. Erregelamendu bietan jasotzen da hiru urteko epe baterako estatu mailako programa batzuk prestatzea, «erlezaintzarako programa» deitu batzuk alegia. Programa horiek Europar Batasunak kofinantzatuko ditu gastuen %50eraino, hain zuzen ere.

Erlezaintzarako 2008-2010 programaren helburu nagusiak dira sektorearen profesionalizazioa finkatzea eta modernizazio handiagoa lortzea, azken teknika eta aurrerapen zientifikoak txertatuz. Gainera, asmoa da ekoizpen eta merkaturatze sistemak hobetzea, baita merkatu berriak irekitzea ere, hori dena kalitateko produktu bat eginez.

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko erlezaintzarenzako laguntzei buruzko 30/2005 Dekretua, otsailaren 15ekoa (2005-03-10eko *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*, 48. zk.), Euskal Autonomia Erkidegoan erlezaintzako produktuen ekoizpen eta merkaturatze baldintzak hobetzeko laguntza erregimenaren garapena eta aplikazioa arautzeko helburua duena, 2008ko urtarilaren 15eko 9/2008 Dekretuaren bidez aldatu da, helburutzat hartuta erlezaintzan aritzen diren elkarte guztiek laguntza horiek jaso ahal ditzaten, berdin diolarik bazkideen erle produktuak merkaturatzen badituzte edo ez.

DIPUTACION FORAL DE GIPUZKOA

DECRETO FORAL 8/2008, de 4 de marzo, de ayudas para el fomento de la apicultura en el Territorio Histórico de Gipuzkoa.

El Reglamento (CE) n.º 797/2004 del Consejo, de 26 de abril de 2004, relativo a las medidas destinadas a mejorar las condiciones de producción y comercialización de los productos de la apicultura, establece las diversas medidas de apoyo y fomento de la apicultura y el Reglamento (CE) n.º 917/2004 de la Comisión, de 29 de abril modificado por los Reglamentos (CE) n.º 811/2007 y 939/2007 de la Comisión, establece las disposiciones de aplicación. En ambos reglamentos se contempla la elaboración de programas estatales por un periodo de tres años, denominados «programas apícolas», que serán cofinanciados por la Comunidad Europea hasta el 50% de los gastos.

Los principales objetivos del programa apícola 2008-2010 consisten en consolidar la profesionalización del sector y alcanzar una mayor modernización incorporando las últimas técnicas y avances científicos. Además, se pretende mejorar los sistemas de producción y comercialización así como abrir nuevos mercados, todo ello con un producto de calidad.

Por otra parte, el Decreto 30/2005, de 15 de febrero, de ayudas a la apicultura en la Comunidad Autónoma del País Vasco (*Boletín Oficial del País Vasco* n.º 48, de 10.03.05), que tiene por objeto regular el desarrollo y aplicación del régimen de ayudas destinadas a mejorar las condiciones de producción y comercialización de los productos de la apicultura en la Comunidad Autónoma del País Vasco, ha sido modificado por el Decreto 9/2008, de 15 de enero, con el fin de facilitar a todas aquellas asociaciones dedicadas a la apicultura, independientemente de que comercialicen o no los productos de sus asociados, su acceso a dicho régimen de ayudas.

Foru dekretu honek, beraz, Gipuzkoako Lurralde Historikoan erlezaintza sustatzeko laguntzei buruzko 2006ko otsailaren 21eko 6/2006 Foru Dekretua ordeztu du, eta erlezaintzarako 2008-2010 programako aurreikuspenen barruan jasotzen ditu 2008ko urtarrilaren 15eko 9/2008 Dekretuaren bidez aldatutako 30/2005 Dekretuan aurreikusitako laguntzak jasotzeko Gipuzkoako Lurralde Historikoan bete behar diren baldintzak.

Azkenik, foru dekretu honetako II. kapituluak erlezaintzaren ekoizpenarekin lotutako jardueren zabalkunderako zentroak sortzeko eta horiek hornitzeko laguntzak jasotzen ditu. Laguntza horien helburua da, Europar Batzordearen 2005eko martxoaren 14ko 422/2005 Erregelamenduaren (EE) III. eranskinarekin bat etorritik, arlo hori oro har gizarte osora hurbiltzea, besteak beste, erlezaintzako produktuen ezaugarriei buruzko argibideak emanez eta osasunari zein ingurumenari dakarkieten onura azalduz, produktu horien kontsumoa bultzatzearekin batera.

Horri guztiari jarraiki, Landa Ingurunearen Garapeneko Departamentuko foru diputatuak proposatuta, aurrez eztabaidaturik eta Diputatuen Kontseiluak gaurko bilkuran onespenez eman diola, hurrena.

XEDATU DUT

I. KAPITULUA

ERLEZAINZAREN PRODUKZIO BALDINTZAK HOBETZEKO LAGUNTZAK

1. artikulua. Laguntza jaso dezaketen jarduerak eta diru laguntzen zenbatekoa.

2005eko otsailaren 15eko 30/2005 Dekretuaren 1. artikuluko 2. apartatuan xedatutakoaren arabera, honako neurriak izango dira laguntzaren gai:

a) Erlezainei eta erlezain elkartei informazioa eta laguntza teknikoa ematea.

Horien artean, erlezainei laguntzeko zerbitzu tekniko espezializatuak kontratatzea eta teknika-prestakuntza mailako zabal-kunde lana egitea izango dira laguntza jaso dezaketen neurriak.

Laguntzaren zenbatekoa laguntza jaso dezakeen gastuaren %80raino iritsi ahal izango da.

b) Barroasiaren aurkako borroka.

Neurri horren barnean laguntza jaso dezaketenak honakoak dira:

— Kimioterapiako tratamenduak.

— Borroka biologikorako metodoak.

— Tratamendu baldintzen hobekuntza.

— Erlauntzak tratamendua errazten duten beste batzuez ordezkatzeta.

Laguntzaren zenbatekoa laguntza jaso dezakeen inbertsioaren %80raino iritsi ahal izango da.

c) Transhumantziaren arrazionalizazioa.

Neurri honen barnean laguntza jaso dezaketenak honakoak dira:

— Erlauntzak garraiatzeko eta maneiatzeko lanabesak erostea eta hobetzea (garabiak, estaltze sareak, erlauntzak lore bakarreko eztiak lortzeko aldatzea, ezti ateratzeko sistema mugikorrak eta transhumantzia errazteko behar diren bestelako lanabes eta ekipok).

— Erlauntzen kokaguneen zein bertarako sarbideen hobekuntza, baldin eta lan horiek Gipuzkoako Lurralde Historikoaren barnean egiten badira.

El presente Decreto Foral, por lo tanto, viene a sustituir al Decreto Foral 6/2006, de 21 de febrero, de ayudas para el fomento de la apicultura en el Territorio Histórico de Gipuzkoa, recogiendo dentro de las previsiones del programa apícola 2008-2010 las condiciones para acogerse en el Territorio Histórico de Gipuzkoa a las ayudas previstas en el referido Decreto 30/2005, modificado por el Decreto 9/2008 de 15 de enero.

Por último el Capítulo II de este Decreto Foral recoge las ayudas a la creación y dotación de centros de divulgación de las actividades relacionadas con la producción apícola. El objetivo de estas ayudas en consonancia con lo indicado en el anexo III del Reglamento (CE) 422/2005 de la Comisión de 14 de marzo de 2005, es acercar este sector a toda la sociedad en general informando entre otras cosas sobre las cualidades de los productos apícolas, los beneficios que aportan tanto a la salud como al medio ambiente, así como potenciar su consumo.

En su virtud, a propuesta del Diputado Foral titular del Departamento de Desarrollo del Medio Rural y previa deliberación y aprobación del Consejo de Diputados en sesión de del día de la fecha,

DISPONGO

CAPITULO I

AYUDAS A LA MEJORA DE LAS CONDICIONES DE LA PRODUCCIÓN APÍCOLA

Artículo 1. Actividades subvencionables y cuantía de las subvenciones.

Serán objeto de ayuda conforme a lo dispuesto en el artículo 1 apartado 2 del Decreto 30/2005, de 15 de febrero, las siguientes medidas:

a) Prestar información y asistencia técnica a los apicultores y a las agrupaciones de apicultores.

Se consideran subvencionables dentro de estas medidas la contratación de servicios técnicos especializados para la asistencia a los apicultores y la divulgación técnica-formativa.

El importe de la ayuda será de hasta un 80% del gasto subvencionable.

b) Lucha contra la varroasis.

Se consideran subvencionables dentro de esta medida las siguientes inversiones:

— Los tratamientos quimioterápicos.

— Los métodos de lucha biológica.

— Mejora de las condiciones de tratamiento.

— Sustitución de colmenas por otras que faciliten el tratamiento.

El importe de la ayuda será de hasta un 80% de la inversión subvencionable.

c) Racionalización de la trashumancia.

Se consideran subvencionables dentro de esta medida las siguientes inversiones:

— Adquisición y mejora de los medios de transporte y manejo de colmenas (grúas, mallas de cobertura, cambio de colmenas para obtener mieles monoflorales, sistemas móviles de extracción de miel y otros útiles y equipo necesario para facilitar la trashumancia).

— Mejora de asentamientos y acceso a los colmenares, siempre que se realicen dentro del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

— Erlauntza eta laukien identifikazioa.

Laguntzaren zenbatekoa laguntza jaso dezakeen inbertsioaren %65eraino iritsi ahal izango da.

d) Erle azienda ugaltzen laguntzeko neurriak.

Neurri horren barnean laguntza jaso dezaketenak honakoak dira:

— Erlekumeak, nukleoak, andere edo erreginak edo erregina-gelak erostea.

— Hemengo arrazetako andere edo erreginak haztea.

Laguntzaren zenbatekoa laguntza jaso dezakeen inbertsioaren %65eraino iritsi ahal izango da.

Diru laguntzak emateko prozedura lehiarik gabekoa izango da, eta kasu guztietan, izendatutako aurrekontua ez bada nahikoa aurkeztutako eskabide guztiei aurre egiteko, eskatutako betekizunak betetzen dituzten eskabide aurkeztu guztien artean banatuko da kreditua, hain justu ere denei aurre egiteko guztizko zenbatekoarekiko bakoitzarentzat kalkulaturako zenbatekoek luketen proportzio berean.

2. artikulua. Pertsona onuradunak.

Laguntza horien onuradunak honakoak dira:

a) Pertsona fisikoak edo juridikoak, erlezaintzako ustialekuen titular badira. Gainera, ondoko baldintza hauek bete beharko dituzte:

— Deialdi honetako diru laguntzen onuradun izateko debekurik ez izatea, 2007ko martxoaren 27ko 3/07 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzkoak, 12. artikuluan ezarritakoaren arabera.

— Zerga helbidea Gipuzkoako Lurralde Historikoan edukitzea.

— Erlezaintzako ustialekua Gipuzkoako Lurralde Historikoko Nekazaritza Ustialekuen Erroldan sartuta dagoen Abeltzaintzako Ustialekuen Errolda Orokorrean —Erlezaintza azpiustialekua— izena emanda edukitzea.

— Eusko Jaurlaritzaren 2004ko otsailaren 10eko 33/2004 Dekretuan, erlezaintza antolatzeari buruzkoan, ezartzen diren arauak betetzea, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Landa Inguru-nearen Garapeneko Departamentuak ezartzen dituen guztiekin batera.

— Erlezaintzan aritu izatea urriaren 16tik hurrengo urteko urriaren 15era bitartera doan erlezaintza-ekitaldia hasten den urteko urtarilaren 1a baino lehen.

b) Erlezain elkarteak, kooperatibak edota nortasun juridiko propioa duten bestelako ordezkariak-erakundeak, a) apartatuko baldintzak betetzen dituzten erlezainez osatuak, neurri batean behintzat.

II. KAPITULUA

ERLEZAINZAREN PRODUKZIOAREKIN LOTUTAKO JARDUEREN ZABALKUNDE ZENTROETARAKO LAGUNTZAK

3. artikulua. Laguntza jaso dezaketen inbertsioak eta diru laguntzen zenbatekoa.

Laguntza jaso dezaketen inbertsioak honakoak dira:

— Lokalak eta ekipamenduak eraikitzea edo egokitzea, erlezaintzarekin zerikusia duten zabalkunde jarduerak egiteko.

— Identificación de colmenas y cuadros.

El importe de la ayuda será de hasta un 65% de la inversión subvencionable.

d) Medidas de apoyo a la repoblación de la cabaña apícola.

Se consideran subvencionables dentro de esta medida las siguientes inversiones:

— Adquisición de enjambres, núcleos, reinas o realeras.

— Cría de reinas de razas autóctonas.

El importe de la ayuda será de hasta un 65% de la inversión subvencionable.

El procedimiento de concesión de las subvenciones será el de concurrencia no competitiva y en todos los casos, en el supuesto de que la consignación no alcanzase para atender a la totalidad de las solicitudes presentadas, dicha dotación se distribuirá entre todas las solicitudes formuladas que cumplan los requisitos exigidos, en la misma proporción que tuvieran las cantidades calculadas inicialmente para cada uno de ellas respecto al importe total necesario para cubrirlas en su totalidad.

Artículo 2. Personas beneficiarias.

Podrán acceder a estas ayudas:

a) Las personas físicas o jurídicas titulares de explotaciones apícolas que reúnan las siguientes condiciones:

— No estar incursas en prohibición para obtener la condición de beneficiaria de las subvenciones objeto de esta convocatoria, de acuerdo con lo establecido en el artículo 12 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de Subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

— Tener el domicilio fiscal en el Territorio Histórico de Gipuzkoa.

— Tener inscrita su explotación apícola en el Registro General de Explotaciones Ganaderas —subexplotación Apicultura— integrado en el Registro de Explotaciones Agrarias del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

— Cumplir las normas establecidas en el Decreto 33/2004, de 10 de febrero, del Gobierno Vasco, de ordenación de la apicultura, así como todas aquellas que establezca el Departamento de Desarrollo del Medio Rural de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

— Haber desarrollado la actividad apícola con anterioridad al 1 de enero del año en el que se inicia el ejercicio apícola que transcurre entre el 16 de octubre y el 15 de octubre del año siguiente.

b) Las asociaciones de apicultores, cooperativas y/u otras entidades representativas con personalidad jurídica propia, integradas al menos en parte, por apicultores que cumplan los requisitos del apartado a).

CAPITULO II

AYUDAS PARA CENTROS DE DIVULGACIÓN DE LAS ACTIVIDADES RELACIONADAS CON LA PRODUCCIÓN APÍCOLA

Artículo 3. Actividades subvencionables y cuantía de las subvenciones.

Serán objeto de ayuda las siguientes actividades:

— Construcción o acondicionamiento de locales y equipamiento para realizar actividades divulgativas relacionadas con la apicultura.

— Erleen jarduerarako behatokiak.

— Tailer didaktikoak.

— Erlezaintzako praktika egokien, erlezaintzak biodibertsitateari eusteko egiten duen ekarpenaren eta eztiaren erabilera eta nutrizio balioaren zabalkunderako foileto eta argitalpenak.

Aipatutako inbertsio multzoari dagokionez, laguntza jaso dezakeen gehieneko inbertsioa 120.000 eurokoa izango da.

Laguntzaren zenbatekoa laguntza jaso dezakeen inbertsioaren %25eraino iritsi ahal izango da.

Diru laguntzak emateko prozedura lehiarik gabekoa izango da, eta izendatutako aurrekontua ez bada nahikoa aurkeztutako eskabide guztiei aurre egiteko, eskatutako betekizunak betetzen dituzten eskabide aurkeztu guztien artean banatuko da kreditua, hain justu ere denei aurre egiteko guztizko zenbatekoarekiko bakoitzarentzat kalkulaturako zenbatekoek luketen proportzio berean.

Lokalak eraikitzen edo egokitzen egindako inbertsioak laguntzaren ondorioetarako baloratzeko, 2006ko urriaren 10eko Foru Aginduaren 2. artikuluan ezarritako moduluak aplikatuko dira (197 zk.ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA, 06/10/17koa).

Laguntza hori eta EAEko, estatuko edo EBko beste erakunde publiko zein pribatu batzuek ematen dituztenak bateragarriak izango dira.

4. artikulua. *Pertsona onuradunak.*

Laguntza horien onuradunak honakoak dira:

a) Pertsona fisikoak edo juridikoak, erlezaintzako ustialekuen titular badira. Gainera, ondoko baldintza hauek bete beharko dituzte:

— Deialdi honetako diru laguntzen onuradun izateko beharrik ez izatea, 2007ko martxoaren 27ko 3/07 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzkoak, 12. artikuluan ezarritakoaren arabera.

— Zerga helbidea Gipuzkoako Lurralde Historikoan edukitzea.

— Erlezaintzako ustialekua Gipuzkoako Lurralde Historikoko Nekazaritza Ustialekuen Erroldan sartuta dagoen Abeltzaintzako Ustialekuen Errolda Orokorrean —Erlezaintza azpiustialekua— izena emanda edukitzea.

b) Erlezain elkarteak, kooperatibak edota nortasun juridiko propioa duten bestelako ordezkaritza-erakundeak, a) apartatuko baldintzak betetzen dituzten erlezainez osatuak, neurri batean, behintzat.

III. KAPITULUA

PROZEDURA

5. artikulua. *Eskariak aurkezteko epea eta tokia.*

Foru dekretu honetan ezarritako laguntzak eskuratzeko, eskariak banaka aurkeztu beharko dira, edo espediente kolektibo bidez erlezain elkartearen kasuan, urte bakoitzeko otsailaren 15etik martxoaren 31ra bitartean, ustialekua dagoen tokiko Eskualdeko Nekazaritza Bulegoan, edo Landa Ingurunearen Garapeneko Departamentuaren Erregistroan, edo Gipuzkoako Foru Aldundiak berak dituen edo hitzarturik dituen erregistro bulegoetakoren batean. Dena den, 30/1992 Legeak, azaroaren 26koak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, bere 38.4 artikuluan aipatzen dituen beste baliabideetako edozein ere erabil daiteke.

— Observatorio de la actividad de las abejas.

— Talleres didácticos.

— Folletos y publicaciones para la divulgación de las buenas prácticas apícolas, la contribución de la apicultura al mantenimiento de la biodiversidad y el uso y valor nutritivo de la miel.

El máximo de gasto subvencionable para el conjunto de actividades indicadas será de 120.000 euros.

El importe de la ayuda será de hasta un 25% del gasto subvencionable.

El procedimiento de concesión de las subvenciones será el de concurrencia no competitiva y en el supuesto de que la consignación no alcanzase para atender a la totalidad de las solicitudes presentadas, dicha dotación se distribuirá entre todas las solicitudes formuladas que cumplan los requisitos exigidos, en la misma proporción que tuvieran las cantidades calculadas inicialmente para cada uno de ellas respecto al importe total necesario para cubrirlas en su totalidad.

Para la valoración de las inversiones en construcción o acondicionamiento de locales a efectos de ayuda se aplicarán los módulos establecidos en el artículo 2 de la Orden Foral de 10 de octubre de 2006 (BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 197 de 17/10/06).

La ayuda será compatible con otras ayudas procedentes de otras instituciones tanto públicas como privadas de la C.A.P.V., estatales o de la U.E.

Artículo 4. *Personas beneficiarias.*

Podrán acceder a estas ayudas:

a) Las personas físicas o jurídicas titulares de explotaciones apícolas que reunan las siguientes condiciones:

— No estar incursas en prohibición para obtener la condición de beneficiaria de las subvenciones objeto de esta convocatoria, de acuerdo con lo establecido en el artículo 12 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

— Tener el domicilio fiscal en el Territorio Histórico de Gipuzkoa.

— Tener inscrita su explotación apícola en el Registro General de Explotaciones Ganaderas —subexplotación Apicultura— integrado en el Registro de Explotaciones Agrarias del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

b) Las asociaciones de apicultores, cooperativas y/u otras entidades representativas con personalidad jurídica propia, integradas al menos en parte, por apicultores que cumplan los requisitos del apartado a).

CAPITULO III

PROCEDIMIENTO

Artículo 5. *Plazo y lugar de presentación de las solicitudes.*

Podrán acogerse a las ayudas establecidas en el presente Decreto Foral, aquellas solicitudes de ayuda que hayan sido presentadas individualmente o en expediente colectivo por parte de las asociaciones de apicultores entre el 15 de febrero y el 31 de marzo de cada año, en la Oficina Comarcal Agraria correspondiente a la ubicación de la explotación, o en el Registro del Departamento de Desarrollo del Medio Rural o en alguna de las oficinas de Registro propias o concertadas de la Diputación Foral de Gipuzkoa, sin perjuicio de cualquiera de los restantes medios señalados por el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

6. artikulua. *Eskatzaileek aurkeztu beharreko dokumentazioa.*

a) Eskatzailea pertsona fisikoa bada:

— Nortasun Agiriaren fotokopia.

— Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak egunean dituela egiaztatzen duten ziurtagiriak. Dena den, zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak egunean izatea ziurtatzen duen egiaztagiria ez da aurkeztu beharko interesatuak eskaera inprimakian berariaz adierazten badu Landa Ingurunearen Garapeneko Departamentuari baimena ematen diola egiaztagiri horiek zuzenean eskatzeko egiaztagirion erakunde igorleei.

— Deialdi honetako diru laguntzen onuradun izateko eskatzaileak debekurik ez duela adierazten duen erantzukizun aitortpena, 2007ko martxoaren 27ko 3/07 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzkoak, 12. artikuluan ezarritakoaren arabera.

b) Eskatzailea pertsona juridikoa bada:

— IFZren fotokopia.

— Legezko ordezkariaren NAren fotokopia.

— Eraketa eskrituraren eta estatutuen fotokopia konpultsua.

— Erakundeko gobernu organoak laguntza eskatzeko eta ordezkaria izendatzeko hartutako erabakiaren ziurtagiria.

— Bazkideen zerrenda eta, hala egokituz gero, sozietatearen kapitalean bakoitzak egindako ekarpena.

— Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak egunean dituela egiaztatzen duten ziurtagiriak. Dena den, zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak egunean izatea ziurtatzen duen egiaztagiria ez da aurkeztu beharko interesatuak eskaera inprimakian berariaz adierazten badu Landa Ingurunearen Garapeneko Departamentuari baimena ematen diola egiaztagiri horiek zuzenean eskatzeko egiaztagirion erakunde igorleei.

— Deialdi honetako diru laguntzen onuradun izateko eskatzaileak debekurik ez duela adierazten duen erantzukizun aitortpena, 2007ko martxoaren 27ko 3/07 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzkoak, 12. artikuluan ezarritakoaren arabera.

c) Erlezain elkarte batek sustatutako espediente kolektiboa bada:

— Eskatzen den laguntzaren hartzaileak erlezain elkartekoak direla egiaztatzen duen frogagiria.

— Produktore elkartearen fitxa teknikoa.

— Laguntza eskatzen den pertsona bakoitzeko, artikulua honetako a) atalean aipatzen den dokumentazioa.

d) a), b) eta c) puntuetan aipatutako dokumentazioaz gain, eskatzen den laguntza motari buruzko honako dokumentazioa aurkeztu beharko da:

d-1) Erlezaintzaren produkzio baldintzak hobetzeko laguntzak, I. kapituluan ezarriak:

— Egin beharreko jardueraren memoria.

— Aurrekontuak eta fakturak.

— Hirugarrenen alta.

— Erlezaintzako ustialekuaren errolda txartela.

Artículo 6. *Documentación a aportar por las personas solicitantes.*

a) En caso de persona física:

— Fotocopia del DNI.

— Certificados de estar al corriente de las obligaciones fiscales y en el pago de las cotizaciones a la Seguridad Social. No obstante, la presentación del certificado referente al cumplimiento de las obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social, no será necesaria en caso de que en el impreso de solicitud, la persona interesada haya manifestado expresamente que autoriza al Departamento de Desarrollo del Medio Rural a solicitar dichos certificados directamente a los correspondientes organismos emisores de los mismos.

— Declaración responsable de que la persona solicitante no esta incurso en prohibición para obtener la condición de beneficiaria de las subvenciones objeto de esta convocatoria, de acuerdo con lo establecido en el artículo 12 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de Subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

b) En caso de persona jurídica:

— Fotocopia del N.I.F.

— Fotocopia del D.N.I. del representante legal.

— Fotocopia compulsada de la escritura de constitución y de los estatutos.

— Certificación del acuerdo adoptado por el órgano de gobierno de la entidad para solicitar la ayuda y designar representante.

— Relación de socios con su aportación al capital social, en su caso.

— Certificados de estar al corriente de las obligaciones fiscales y en el pago de las cotizaciones a la Seguridad Social. No obstante, la presentación del certificado referente al cumplimiento de las obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social, no será necesaria en caso de que en el impreso de solicitud, la persona interesada haya manifestado expresamente que autoriza al Departamento de Desarrollo del Medio Rural a solicitar dichos certificados directamente a los correspondientes organismos emisores de los mismos.

— Declaración responsable de que la persona solicitante no esta incurso en prohibición para obtener la condición de beneficiaria de las subvenciones objeto de esta convocatoria, de acuerdo con lo establecido en el artículo 12 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de Subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

c) En caso de expediente colectivo promovido por asociaciones de apicultores.

— Justificación acreditativa de pertenencia a la asociación de apicultores de aquellas personas asociadas para las que se solicita la ayuda.

— Ficha técnica de la asociación de productores.

— Por cada persona asociada para la que se solicite ayuda, la documentación indicada en el apartado a) de este artículo.

d) Además de la documentación indicada en los puntos a), b) y c) deberán aportar la siguiente documentación relacionada con el tipo de ayuda que se solicita.

d-1) Ayudas a la mejora de las condiciones de la producción apícola establecidas en el Capítulo I:

— Memoria de la acción a desarrollar.

— Presupuestos y facturas.

— Alta de terceros.

— Tarjeta del registro de explotación apícola.

d-2) Erlezaintzaren zabalkunderako zentroetarako laguntzak, II. kapituluaren ezarriak:

- Aurrekontuak eta fakturak.
- Proiektu teknikoak.
- Egingo diren zabalkunde jardueren memoria.
- Bideragarritasun azterketa.
- Obretarako udal lizentzia.

7. artikulua. *Tramitazioa eta ebazpena.*

Espedienteak Landa Garapeneko eta Nekazaritza Egiturarako Zerbitzuak tramitatuko ditu. Zerbitzu horrek aztertuko du aurkeztutako dokumentazioa, eta beharrezko kontrolak eta egiaztapenak egingo ditu. Ondoren, laguntza emateko edo ukatzeko proposamena egingo dio Landa Ingurunearen Garapeneko Departamentuko foru diputatuari, eta horrek ebaztuko du.

Landa Garapeneko eta Nekazaritza Egiturarako Zerbitzuak egiten duen proposamena ikusirik, Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurrekontuen kontura finantzatutako laguntza emateko Foru Agindua emango du, hala bidezkoa bada, Landa Ingurunearen Garapeneko Departamentuko foru diputatu titularrak, NBEF fondoen kontura finantzatutako laguntza eskuratzeari proposatuz, eta ebazpen hori onuradunari jakinaraziz.

Ebazpena 1992ko azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, aurreikusten duen moduan emango zaie aditzera interesatuei, gehienez ere sei hilabeteko epean. Epe hori igaro eta artean ez bada ebazpenik edo jakinarazpenik eman, administrazio isiltasuna ezestekoa dela ulertuko da, aipatutako 1992ko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 44.1 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

Ebazpen horren kontra berraztertzeko errekurtsoa aurkez diezaioke interesatuak Landa Ingurunearen Garapeneko Departamentuko foru diputatu titularri, gehienez ere hilabeteko epean, aipatutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak ezartzen duenarekin bat.

8. artikulua. *Ordainketa.*

Laguntza ordaintzeko baldintza laguntzak berak oinarri dituen inbertsioak edo konpromisoak gauzatzea izango da. Egindako inbertsioei buruzko ziurtagiriak eta ordainketa frogagiriak jaso ondoren, bidezkoa izango da laguntzaren zati baten ordainketa baimentzea, Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurrekontuen konturako zatia alegia; honekin batera, NBEFko erakunde ordaintzaileari igorriko zaio EBko fondoen bidez finantzatutako den laguntzaren zatia ordaintzeko proposamena.

9. artikulua. *Pertsona onuradunen betekizunak.*

Foru dekretu honetako diru laguntzen onuradunek obligazio hauek bete behar dituzte, 2007ko martxoaren 27ko 3/07 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzkoak, 13. artikuluan ezarritakoez gain.

a) Emandako diru laguntza onartzea. Ildo horretatik, laguntza eman dela dioen jakinarazpena jasotzen duenetik kontatzen hasita 15 eguneko epean onuradunak ez badio berariaz eta idatziz uko egiten emandako laguntzari, laguntza hori onartu duela ulertuko da.

b) Diru laguntza eman den xede zehatzetarako erabiltzea, eta emateko ebazpenean ezarritako baldintzekin bat betiere.

c) Gipuzkoako Foru Aldundiari, NBEFko erakunde ordaintzaileari, Herri Kontuen Euskal Epaitegiari edo horien izenean diharduen edozein erakunde edo zerbitzu publiko edo

d-2) Ayudas a centros de divulgación de la apicultura establecidas en el Capítulo II:

- Presupuestos y facturas.
- Proyecto técnico.
- Memoria de actividades divulgativas a desarrollar.
- Estudio de viabilidad.
- Licencia municipal de obras.

Artículo 7. *Tramitación y resolución.*

Los expedientes serán tramitados por el Servicio de Desarrollo Rural y Estructuras Agrarias, que analizará la documentación presentada y efectuará los controles y comprobaciones pertinentes, elevando al Diputado Foral del Departamento de Desarrollo del Medio Rural, para su resolución, propuesta de concesión o denegación de la ayuda solicitada.

A la vista de la propuesta del Servicio de Desarrollo Rural y Estructuras Agrarias, el Diputado Foral Titular del Departamento de Desarrollo del Medio Rural emitirá, si procede, la Orden Foral de concesión de la ayuda financiada con cargo a los presupuestos de la Diputación Foral de Gipuzkoa y propondrá el acceso a la ayuda financiada con cargo a los fondos FEAGA, notificando la citada resolución a la persona beneficiaria.

La resolución se notificará a las personas interesadas en la forma prevenida en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, en el plazo máximo de seis meses desde la publicación de la convocatoria. Si transcurrido dicho plazo no se hubiese dictado y notificado resolución expresa, se entenderá que el silencio administrativo es desestimatorio, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 44.1 de la mencionada Ley 30/1992, de 26 de noviembre.

Contra dicha resolución podrá interponerse por parte de las personas interesadas, recurso de reposición ante el Diputado Foral titular del Departamento de Desarrollo del Medio Rural en el plazo máximo de un mes, de conformidad con la referida Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Artículo 8. *Pago.*

El pago de la ayuda estará condicionado a la realización de las actividades o compromisos que fundamenten la ayuda. Una vez recibidas la memoria de la actividad subvencionada, la relación de ingresos y gastos de la misma y las certificaciones, facturas y justificantes de pago relativos a las actividades ejecutadas, procederá a la autorización del pago de la parte de la misma financiada con cargo a los presupuestos de la Diputación Foral de Gipuzkoa, así como la remisión al Organismo Pagador del FEAGA de la propuesta de pago de la parte de la ayuda financiada con fondos de la U.E.

Artículo 9. *Obligaciones de las personas beneficiarias.*

